

Liburuak

KRITIKA

Suzko lilia. Hedoi Etxarte.
Susa. 95 orrialde. 11,40 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona

Pasatuko zaio

HEDOÍ ETXARTEREN iluminazioek –Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka– desorientaturik utzi naute. Ideia nagusirik ez dauka liburuak. Nik behintzat ez diot aurkitu. Poeta izatearen ageri-ageriko emozioak ziprztintzen du dena. Opera primak normalean izan ohi duten atrebentzia daukate suzko liliek, baina idazle hasiberriaren lotsarik eta frenorik ez da igartzen inondik. Zakarki idatzia dago, amore eman barik, kopiatu barik, akatsak bereak dira, bertuteak ere bai.

Hedoi Etxarteren poema bakoitzaren hasieran halako zirrara bat harrotzen da, zerbait interesgarria gorde dezakeela diotsun sentipen baten antzekoa, baina gero emozioa ez dator, ez da lana errematurik geratzen, mahatsa ez da botilara iristen. *Gerrikoa*, *Itsasontzia* eta halako pieza batzuk kenduta, grinarik gabeko konposizioak dira gehienak. Liburuan ez dago errotorik, ez dago persistentziarik, bilaketa eta bilaketa dago, etengabekoa. Hedoi liburu honekin konbenzio asko irauli dituela bistan da, baina arean gordinagoa espero nuen nik idazkera, kontuan harturik aberatsak direla gaiak eta motiboak. Iradokitzailea da *Suzko lilia*, ez ostera jenio bizikoa, edo behintzat zer edo zelango marka uzten duen obra horietakoa.

Poesiak giza esperientzian funtzio bat baldin badu, hori da bide berriak ibiltzearena, gauzak beste modu batera esatearena, hautua egitea hitz honen edo bestearen ametsaren artean. Hogeita bi urterekin inork ez ditu inoiz munduko poemarik ederrenak idatzi, nahiz eta beharrezkoa izan, era berean, atrebentzia horrekin idaztea. *Suzko lilia* lur birjina zapaltzen ari denaren argitasunarekin pentsatua dago. Horregatik diot “pasatuko zaio”: elgorria, liluramendua, idatziko ditu, edo entzungo dizkiogu, poema sendoagoak, aurkituko du bere ahotsa, sakonagoa, apurka-apurka. Zergatik dakigu hori? Bada, liburu onesta idatzi duelako Hedoi Etxartek, eta ardura diolako poesian bide berriak urratzea. Eta hori da, edozein kasutan, lehen pausoa: egia esatea norbere buruari, beldurrik ez izatea ezeri. Eta bihotza zabaltzen hasi garenez guztiok, nik esango dut, irakurle bezala, ez naizela identifikaturik sentitzen lirismo meta honekin, baina estimatzen dudala bere ausardia, eta ariketa interesgarria iruditu zaidala sano.

Materia badauka, forma falta zaio. Bibrazioa badauka, oraindik ahotsik ez. Sonoritatea badauka, baina ez da musika. Poesia badago, poetika falta da.



Euskal musikaren etorkizuneko gida

Oraingo taldeak dira, eta etorkizunez kargatuta datoz: Gaztesareak argitaratu duen *Musikagida 09* liburuak gonbidapen bikaina da Euskal Herriko musika talde eta bakarlari gazteak ezagutzeko. Guztira 300 talderi buruzko informazioa, argazkiak eta kantak aurkituko dituzu liburu honetan. Gainera, liburuak zabaltzeko, Copyleftari buruzko



Musikagida 09.
Batzuen artean.
Gaztesarea.
180 orrialde +
2CD.
13 euro.

erreportajea osatu dute, musikan eragile aktibo diren hainbat pertsona elkarrizketatuz. Horrekin lotuta, eta liburuan argitaratutako edukiak errazago zabaltzeko asmoz, Creative Commons erako lizentziarekin banatuko da. Egilea aitortuta eta lizentzia berarekin banatuta, edukiak kopiatzea libre izango da. |

Nazionalismoaren inguruan eztabaidatzeko

Esteban Antxustegi EHUKo Filosofia Moralaren eta Politikoaren arloko irakasle titularra da, eta hainbat liburutan jorratu ditu demokraziaren eta filosofia politikoaren inguruko gaiak. *El debate nacionalista. Sabino Arana y sus herederos* izeneko liburuan zera aztertu du: euskal nazionalismoa osatu zuten era bateko eta beste adarrek mugimendu horretan sortutako tentsioak. Antxustegi orainalditik abiatu da, lehenaldiaren inguruko gogoeta egiteko. Euskal nazionalismo historikoari eta ideologia horren oinarriko ezaugarriak buruzko ezagutza zabaltzea da liburuaren helburua, baita, identitatearen arazoarekin

aurrez aurre, gizarte demokratikoa eraikitzeko erronka luzatzea ere. |



El debate nacionalista...
Esteban Antxustegi.
Murtziako Unibertsitatea.
324 orrialde.
15 euro.